

B18

Todo esto no es nada...

Poema hau zalantzarik gabe Filipe Ruiz de Ibarretaren eskuz idatzia dela esan daiteke, 1171r orrialdean hark sinaturiko testu batean (*Yo odi a Anacho Audicarra...*) erabili diren tinta eta idazmolde bera baitira hemen. Gogoratu behar da testu hori datatua dela: *este año de [mil] seicientos y seis*. Esku berak idatzia da, orobat, 1138r orrialdeko beste hau: *Digo yo el tesorero mayor que más vale un doblón para moças alcançar que en su puerta cantar una muy dulce canción [...]*.

Eskuizkribuan, hamabost silabako lau lerrotan idatzita dago lehenengo ahapaldia; bigarrenaren kasuan, hamabost silabako bi lerro idatzi ditu, baina hortik aurrerakoa neurri jakin gabeko hiru lerrotan idatzi da. Lerro-banaketa, hortaz, geuk erabakia da, batik bat errima aintzat harturik.

Ideia nagusia argia da: dirua, eta ez kantuan ibiltzea, behar da andrazkoak erakartzeko. Aipatu behar da 1138r orrialdeko idatzian ere ideia hori berori agertzen dela, eta, *todo esto* kataforikoak agertzen duenez, aurretik beste zerbait falta dela.

<1187r> Todo esto no es nada
 para moças alcançar;
 lo mas lindo y donoso¹
 es con ellas retoçar.
 No hai cosa que tanto aga
 a las damas ablandar,
 como es el son de dinero,
 que las haze madurar.

5

 No gastéis, enamorado,
 tiempo en cantar;
 procura con cuidado
 muchos dineros auchar,²

10

¹ *donoso*: ‘atsegina’.

² *auchar*: ‘gorde’; cf. *DAut*, s.v. *ahuchar*: “Ir guardando el dinero que se ahorra. Es voz compuesta de la partícula A, y del nombre Hucha, que significa arca o vasija de barro adonde se guarda el dinero”.

porque con eso quitaraéis³ el cuidado
 de de noches⁴ escuchar,
 que mientras en ese vicio te ocupas 15
 podéis dos veces saltar.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

izenb. Lehenengo ahapaldia testu nagusiaren azpian idatzita dago, eta bigarrena, behetik gora idatzita, testu nagusiaren eskuinean. Bi ahapaldiak Filipe Ruiz de Ibarretaren eskuz idatziak dira. 6 a] lerroartean idatzita. 9 gastéis] -is geroago tartekatu da, lehenengo *gastes* idatzi baitu. || enamorado] esk. *enan[.]morado*. 10 cantar] ondoren *es de curaa* (?) tatxatuta.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B18 – Todo esto no es nada...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

Bestalde, hona Andres Pozaren *De la antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* (1587) liburuko aipu argigarri bat: “el vocablo *auchar*, el cual, así como no es latino, ni griego, ni arábigo, ni hebreo, luego le reconocemos en el vascuence, y todos le tienen por puro castellano, no lo siendo sino vascongado; porque *ucha* significa una caja o una arca en que se guarda algo, y de aquí se dijo *auchar* por el guardar y juntar en custodia”.

³ *quitaraéis*: Eskuizkribu guztian ez dago *-ais* amaieraren adibide bat ere; *-eis* ondokoetan lekukotzen da: *podréis* (1138rd), *gastéis* (B18: 9) eta *podéis* (B18: 16). *CORDEn* ez dugu aurkitu *-aeis* atzizkiaren adibiderik.

⁴ *de noches*: *CORDEn* dozenaka adibide daude, 1600 arte, “de noches” gaurko “de noche”-ren orde.